



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Zerbitzuen arduradun (A2) lanposturako bitarteko funtzionario bat LANBIDE bitartez kontratatzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea (2026ABFI0017)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Udaleko Giza Baliabide eta Antolaketako teknikari naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente-zk.:..... 2026ABFI0017
 Espedientearen helbidea:.. OÑATI
 Gaia:..... Zerbitzuen arduradun (A2) lanposturako bitarteko funtzionario bat LANBIDE bitartez kontratatzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea
 Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2026ko ekainaren 12ko Alkate-dekretu bitartez (1165 zkia.) zerbitzuen arduradunaren lanposturako bitarteko funtzionario bat LANBIDE bitartez betetzeko oinarriak argitaratu ziren LANBIDEn.

Izen-emate epea amaituta, behin-behineko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak argitaratu behar dira.

DEIALDIA: ZERBITZUEN ARDURADUNA (2026ABFI0017)
Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Onartuen zerrenda:

<i>Izen-abizenak</i> <i>Nombres y apellidos</i>
ALIZIA ASTIAZARAN MORAL
ASIER ECHABURUA AGUIRRE
CARMEN MARTINEZ DE LEJARZA AMENABAR
JAKINDA GABIKAGOJEASKOA GARRO
MIRIAM ARRUEBARRENA AIZPURUA

Baztertutakoak:

Ez da baztertutakorik egon.

DEIALDIA: ZERBITZUEN ARDURADUNA (2026ABFI0017)
Merezimenduen behin-behineko zerrenda

Behin-behineko merezimenduen balorazioa, hurrengoa da:

	Lan-esperientzia (gehienez 30 puntu)	Ikastaroak eta titulazioa (gehienez 15 puntu)	GUZTIRA
CARMEN MARTINEZ DE LEJARZA AMENABAR	20,8	5	25,8
JAKINDA GABIKAGOJEASKOA GARRO	3,15	1,75	4,9
ALIZIA ASTIAZARAN MORAL	0	1	1
MIRIAM ARRUEBARRENA AIZPURUA	0	0	0
ASIER ECHABURUA AGUIRRE	0	0	0

Proposamena:

Zerbitzuen arduradunaren lanpostua bitarteko funtzionario modura eta karrerako funtzionario batek bete bitartean hornitzeko, behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea eta 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Adierazitako epe horren barruan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, zerrenda hau behin betikotzat jotzea automatikoki."

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabaki dut:

Lehenengoa.- Zerbitzuen arduradunaren lanpostua bitarteko funtzionario modura eta karrerako funtzionario batek bete bitartean hornitzeko, behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea.

Bigarrena.- Erabakia Oñatiko Udaleko webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Laugarrena.- Adierazitako epe horren barruan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, zerrenda hau behin betikotzat jotzea automatikoki eta eragin orotarako.



OÑATI
dabilen herria

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko ekainaren 23a

